



Olentzeroa bahitu izana onartu duten guardia zibilei espedienteak irekiko diete

ARESO ▶ Halaxe eman du jakitera Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak; lekukoak adierazpenak «baliotsuak» izan dira ▶ 5



Elurra mara-mara eta bazterrak zuri bi eskualdeetan

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Zuri esnatu ziren atzo bi eskualdeak, eta halaxe jarraitu zuten txokoek egun osoan (argazkian, Tolosaren ikuspegia, eguerdi partean). Errepideei begira ziren asko eta asko, horixe izaten baita horrelakoetan kezka nagusia. Dena den, Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen A-

15 errepidea, esaterako, zabalik mantendu zuten atzo. Kaxetako portuan, berriz, beharrezkoak ziren kateak. Oraindik elurra egin-go duela iragarri dute adituek eta, beraz, autoa beharrezko kasuetan soilik hartzea eta hartuz gero arreta gehiagotu eta kateak eskura izatea gomendatu dute. L. MONTES ▶ 5

TOLOSA ▶

Wifi sistema Errotan eta Aranburuko liburutegian

«Teknologia berriekin zerbitzu hobea eskaintzea» xede ▶ 2

LEITZALDEA ▶

Ume askok eman du izena aisialdi saioetan

Harriturik eta pozik dira ekimenaren sustatzaileak ▶ 3

BEDAIO ▶

Gabon egunetan, festa giroa non-nahi

Egutegia atera berri du Artubi elkarteak, argazki zaharrekin ▶ 6

IBARRA ▶

Presoen egoera salatu du Batasunak

«Inoiz baino larriagoa» dela dio ▶ 7

TOLOSA ▶ TEKNOLOGIA

Wifi sistema instalatu dute Errotan eta Aranburu Jauregiko liburutegian

«Teknologia berriekin, herritarrei zerbitzu hobea» eskaintzea du helburu Udalak; atzo egin zuten proiektuaren aurkezpena udal ordezkariak Errotan



Ezker-eskuin: Fran Redondo, Jokin Azkue eta Antton Ribero, atzo eguniko prentsaurrekoan. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Gaurtik aurrera Errotan, Aranburu Jauregiko liburutegiko solairuan eta bi eraikinen artean dagoen parkean kaberik gabe Internetera konexioa egiteko aukera izango dute herritarrek, bertan wifi sistema instalatu berri baitu Udalak, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarekin. Doakoa izango den zerbitzu honen erabilerearen

eta helburuen berri emateko, Errotan aurkeztu zuten atzo proiektua Antton Ribero Udaleko personaleko eta antolakuntza buruak, Fran Redondo teknologia berrien arduradunak eta Jokin Azkue Ogasun eta Gizarte informaziozinegoztiak. Teknologia berriak garatzeko apustu «sendoa» egin nahi du Udalak «teknologia zenbait erronka betetzeko ezinbesteko tresna baita», Jo-

kin Azkue zinegotziaren hitzetan.

Helburua, batetik, teknologia herritarren zerbitzura jartzea da, Udalean jorritzen diren gai eta lan ezberdinen informazioa igortzeko. Herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa hurbildu nahi dute, halaber. Eta, bestetik, udaletxeko barne kudeaketan ere aldaketak egin nahi dituzte, informazio guztia datu base

batean bilduz. Wifi sistema beste pauso bat da teknologia berriaren ezarpenean. Fran Redondok azaldu zuenaren arabera, «ordenagailu eramangarriak wifi sistema izanda nahikoa da konexioa lortzeko». Gainontzekoan, Internetara arazorik gabe erabili daitezke. Proba piloto bezala abiarazi dute proiektua, eta baliteke etorkizunean herriko beste gune batzuetara zabaltzea, udaletxera eta Kultur Etxera, esaterako.

Beti ere herritarrei zerbitzua eskaintzeko, Udaleko web orri ofiziala egokituko dute, sartzea errazteko eta zerbitzua «hain estatiko» izan ez dadin. Urrats ezberdinak garatuko dituzte, beraz, herritarren ahotsa entzuteko eta haien iritziak jasotzeko, «galdetegi batzuen bidez, adibidez». 2006an garatuko den proiektu baten barnean sartu dituzte asmo hauek. «Herritarrek sinestarazteko modurik onena zerbitzuak eskaintzea da», azaldu zuen Azkuek. Honen harira burutu nahi duten beste ekimena tolosarrei mugikorrera SMS mezuak bidaltzea dela jakinarazi zuten atzokoan. Horrela, ur zerbitzuen, zergen, trafikoaren edota aparkalekuen hutsuneen gaineko informazioa mugikorrera iritsiko zaie herritarrei.

LEABURU ▶

‘Hitzak patriketan’ antzezlanaren bihar

Egun hauetako elurra dela eta atzo antzeztekoak ziren *Hitzak patriketan* emanaldia atzeratu egin dute. Horrela, antzezlanaren bihar aurkeztuko dute, Leaburuko gazte gelan, 17:30etik aurrera.

TOLOSA ▶

Salaketa TAOk igorritako gutunaren harira

Tolosako Udaleko TAO zerbitzuak gutuna igorri berri die bere bezeroei, aurtengo kuotaren 2 euro igo direla jakinarazteko. Gutun hau gaztelania hutsean bidali izana salatu du herritar batek, Hitzari bidalitako ohar batean. «Lotsagarria da udaletxetik bidalitako eskutitz bat dena gaztelaraz egotea; hobe luke euskara kanpainetarako argazkia ateratzeko protagonismoak utzi eta horrelako gauzak gerta ez daitezkeen pixka bat gehiago arduratzea», salatu du, tinko.

VILLABONA ▶

Cycling maratoi txikia gaur Olaederran

Gaur, Olaederra kiroldegian, Gabonetako oporren etenaldian, Cycling maratoi txikia antolatuko dute, 18:30etik 21:30era. Usabal kiroldegitik 23 txirrinda eraman dituzte eta, beraz, 40 partaidetik gora ariko dira kirol hori praktikatzeko.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

LEITZALDEA ▶ AISIALDIA

Aisialdiko saioak haur eta gaztetxoentzat

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak antolatu ditu Eguberrietako oporraldirako; 3 eta 12 urte bitartekoei egin diete deialdia

IRATXE ETXEBESTE

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak aisialdi saioak antolatu ditu haurrentzat eta gaztetxoentzat Eguberrietako oporraldirako. Leitzako, Aresoko, Goizuetako eta Aranoko 3 eta 12 urte bitarteko haurrei eta gaztetxoek egin die deia antolatutako ekimenetan parte hartzeko. Leitzan atzo bertan hasi ziren ekintzekin, eta hilaren 30ean eta 2006ko ilbeltzaren 2an eta 4ean ere badira elkar-tzteok, Agrikolan.

Areson, berriz, gaur ekingo diete Gabonetako oporraldirako antolatutako aisialdi saioei. Gaur eta ilbeltzaren 3an izango dira saioak, eskolako areto handian. Goiz osoan izango dira saio horiek Ainhoa Antizar, Naiara Agirre eta Ireber Arangoa begiraleen gidaritzan.



Leitzaldeko haurrak, atzo, Gabonetako aisialdi saioetan. JAIONE ASTIBIA

pean. Haien laguntzarekin askotariko jardueratan ariko dira haurrak eta gaztetxoak egunotan: etxetik eramandako gaiak birziklatuz eskulanak egiten, jokoak, antzerkia, marrazketa eta margoketa... «Uste baino jende gehiago etorri da», zioten atzo sustatzaileek. «Beste

urteetan dozena bat-edo etortzen ziren, eta adin beretsukoak, gainera. Baina gaur [atzo-koaz] askoz gehiago etorri dira, bai ttikiak eta bai bizkorragoak», zioten begiraleek collage-a egiten ari zirenean. «Oharkabean harrapatu gaitu, baina moldatu eta aurrera».

TOLOSA ▶ ARRAUNA

TAKek bilera baterako deialdia luzatu du, klubaren gaineko gaiak aztertzeko

Hitzordua urtarrilaren 4an izango da, 20:00etan, udaletxeko aretoan

ERREDAKZIOA

TAKek, Tolosaldeko Arraun Klubak, deialdi irekia egin du udaletxeko pleno aretoan egingo den bilerara joateko, urtarrilaren 4an, asterarte, 20:00etan. Bertan hitz egingo diren gaiak hauexek izango dira, besteak beste: klubaren ekital-

diak eta Gipuzkoako ligaxkan parte hartuko duten taldeak; izan ere, eskualdeko hamar talde ariko dira lehian maila ezberdinetan. Bestalde, urtarrilaren 8an, 11:30ean, Neguko Estropadaren berri eman nahi du taldeak, azken urteotan izan duen arrakastaren erakusgarri. Bide batez, irakurleak ikus-

tera eta animatzea etortzea gonbidatu nahi genituzke, giro polita egongo baita.

Azkenik, gai nagusien artean, presa puzgarriaren proiektua eta Zerkausiaren behealdearen erreforma izango dira hizpide, bertarutzen diren galdera eta iradokizunei bide emanez.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Igarondo elkarteko txeeen kanpainako bi irabazleak

N. Lataburu ▶ Igarondo merkatarien elkarteak dendarietako duela hilabete batzuk abian jarritako txeeen kanpainaren irabazleak jakitera eman ditu. 600 eta 300 euroko balioa duten erosketatxekeen zozketa herenegun egin zuten: 600 eurokoa Tolosako Izaskun Alberdik irabazi du, Super Ekon betetako txartelarekin —goiko argazkian—, eta 300 eurokoa, berriz, Andoaingo Maria Luisa Etxeberriarentzat izan da. Aralar Kirolak dendan eginiko erosketari esker —beheko argazkian—. Bi irabazleek, bada, sarritutako txee horiek Igarondo merkatarien elkartearen barnean dauden denda guztietan erabili ahal izango dituzte. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan

50.000

etxetara

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

IRURA ▶

ETak bere gain hartu du Angulas-eko atentatua

Besteak beste 'Berria'-k argitaratu duen agirian zehaztu du bere autoretza

I. GARCIA

ETak bere gain hartu du hilaren 17an Iruran dagoen Angulas Aginaga, S.A. enpresak jasotako atentatua. Besteak beste *Berria* egunkarian argitaratu den agirian, «Euskal Herriaren askatasunaren aldeko diru laguntza emateari uko egiteagatik eta ETaren boikot ekimenaren baitan» egin zuela ekintza azaldu du erakunde armatuak.

Enpresaren bulegoetan kalte material ugari sortu zituen ezta, baina ez zion eguneroko jardunari asko eragin, «normaltasunean» ari baitzen lanean atentatua gertatu eta bi lanegunetara, enpresak azaldu zuenez.

HITZA harremanetan jarri da Iruran kokatutako enpresarekin ETaren agiriaren berri jakin ondoren, baina bozeramaileak deklaraziorik ez dutela egingo azaldu du. Egun, leherketak eragindako kalteak konpontzen dihardu Angulas Aginaga, S.A. enpresak.

VILLABONA ▶ ANTZERKIA

‘Erreleboa’ antzezlan gaur, Gurean

Txalo taldearen komedia dohainik ikusteko aukera 20:00etatik aurrera

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak antolatuta, Txalo antzerki taldeak *Erreleboa* antzezlan eskainiko du gaur, 20:00etan. Gurea aretoan egingo dute, eta sarrera dohainik izango da. Begoña Bilbaok zuzenduta, Iker Galarza eta Joseba Usabiaga tolosarrak dira antzezleak, eta Ernesto Caballero idatzitako lana da taularatzen dutena.

1985. urteko neguko gau batean kokatzen da antzezlan. «Algezirasen bi lagun soldaduskari. Ez, bi ezagun. Edo lagun egingo diren bi ezezagun. Edo elkar ezagutzeko aukerarik ere izango ez duten bi lagun. Azken finean, bi euskaldun etxetik kanpo. Bata soldaduska amaitzekotan. Bestea hasi berritan». Horrela auzketzen du Txalo taldeak *Erreleboa* komedia.

Antzezlanean «esperientzia, inoentzia, adiskidetasuna, inbidia, borroka, leialtasuna...» agertzen dira, «denak batera, denak gau batean. Bata beste-



Erreleboaren irudi bat. HITZA

aren kontra eta bata bestearekin bat. Esperientziak konpartitzeko, bizipenak eta biziminek kontatzeko gau aparta». Agustín eta Joxe dira protagonistak: «Soldaduskaren esklabo. Bizitzaren morroi. Jaioterriaren karga. Etxekoan nostalgia». Azken finean, Algezirasen gau bat, «batzuetan bizi, bestetan motel, gau hotz bateko erreleboa».

ANOETA ▶

Ezohiko udal bilkura deitu du Udalak gaurko

Ezohiko eta urjentziako osoko bilkura deitu du Anoetako Udalak gaur goizerako. 11:30ean ekingo diote udalbatzarrari, eta ondorengo aztergaiak hartuko dituzte kontuan: bilkura presazkotzat jotzea; 2006. urterako udal ordenantzei aurkezturiko alegazioak; eta Area 1 eta Area 2 trukaketa hitzarmena aldatzeko proposamena, hain zuzen ere.

ANOETA ▶

Herriko KZgunea berriro irekita gaurtik aurrera

Hilaren 20tik arazo teknikoengatik itxita egon ondoren, gaurtik aurrera KZgunea zabalik egongo da berriro ohiko ordutegian, asteartetik ostegunera, 9:00etatik 11:00etara. Gaur tutorearen bisita jasoko du KZgunea eta, beraz, ordutegia 9:00etatik 13:00etara izango da. Mintegia ere egongo da, 10:00etatik 12:00etara, *Euskara ziberespazioan* izeneko.

ANOETA ▶ AGENDA 21



Haurrek aurpegia margotu zuten jolasean hasi aurretik. HITZA

Birziklapenaren inguruan jolasean

Agenda 21 plazaratzeko ekitaldia burutu zuten atzo Anoetan. 15 ume inguru agertu ziren jolastera. Umeek aurpegia margotu zuten, eta pista jolasa egin zuten herriko txoko desberdinetatik. Toki bakoitzean hainbat proba egin behar izan zituzten, eta jolasak iraun zuten bitartean birziklapenaren inguruko galderak egin zizkieten haurrei. Proba bakoitza egin ondoren hitz bat ematen zieten umei, eta azkenean esaldi hau osatu zuten: *Zabor bakoitza bere ontzira*. Amaitzeko, umei zer nolako Anoeta nahi zuten galdetu zieten, eta horri buruzko mural bat egin zuten.

hitza^k

zure marrazkia

argitaratuko du!

Nola ikusten duzu zure herria?

bidali zure marrazkia!

3 eta 12 urte arteko haurrak,

bidali zure marrazkiak HITZAko egoitzara (Araba etorbidea 5, atzea Tolosa 20400), zure izen-abizenak, adina eta marrazkiaren azalpen labur batekin). Marrazkiaren formatua: DIN A4

Parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko ditugu. Marrazkien erakusketa egingo du urtarrean Tolosako Alde Zaharra Merkatarik Elkartek.

• BAZAR AMIANO	KORREO, 44	• SHANTI KIROLAK	RONDILLA, 11 Bis	• GORROTXATEGI GOZOTEGIA	PLAZA ZAHARRA, 7
• DAKARO	KORREO, 50	• BERMUDEZ FRUTATEGIA	RONDILLA, 19	• ARANBURU LIBURUTEGIA	SOLANA, 7
• MAITE GOXOKIAK	KORREO, 19	• MUÑAGORRI HARATEGIA	RONDILLA, 5	• OGI-BERRI	ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1
• IRURA OKINDEGIA	KORREO, 50 (kaletartean)	• KINU	RONDILLA, 17	• OGI BERRI	NAGUSIA, 13
• ALTUNA HARATEGIA	KORREO, 44	• ALEJANDRO GOYA HARATEGIA	RONDILLA, 23	• NATURAL BODY - B.COLLADO	NAGUSIA, 25
• SUKIA HARATEGIA	KORREO, 39	• XIRIMIRI TXOKOLATEGIA	ERREMENTARI, 40	• KIMETZ	NAGUSIA, 23
• LA CASA AZUL	KORREO, 21	• INTERFILM	ERREMENTARI, 44	• GORROTXATEGI DIETETIKA	NAGUSIA, 2
• OGI ONA	KORREO, 37	• LIZARRALDE HARATEGIA	ERREMENTARI, z/g	• PIRULO'S	LEITZA z/g
• NOOR	KORREO, 16	• BILINTX LIBURUDENDA	AROSTEGIETA, z/g	• EDEL LIBURUDENDA	LEITZA z/g
• EZEIZA GOZOTEGIA	RONDILLA, 34	• ZUNBELTZ DISKAK	AROSTEGIETA, 9	• EL BACALAO GOXOKIAK	KORREO, 51 (KALETARTEAN)
• ALDE ZAHARREKO OSTALARIEN ELKARTEA					

ALDE ZAHARREKO MERKATARI ELKARTEA

ELURTEA ▶

J. ASTIBIA

Iragarritakoa bete da. Berdentzabart eraso zion elurrak eta atzo egun guztian zehar, gutxi-asko, erabat aritu zuen, mendi eta kale, zuri-zuri estaliz. Horrelaxe esnatu ginen, eta egun guztian irudi polit askoak ikusi ahal izan genituen non-nahi, eta haurrek jostaketarako baliatu zuten eguna.

Kezka nagusia, ordea, errepideen egoera izaten da. Atzo ez zen arazo gehiegirik izan: A-15a irekita mantendu zen erabat eta bigarren mailako errepide sarean, kateak behar ziren portu bakarra Kaxetakoa izan zen. Gaurko, berriz, elurra pilatzen joan den bezala, autoa beharrezko kasuetan soilik hartzeko aholkua emana dago. Kasu horretan errepidean arretea gehiagotu eta kateak eskura izatea beharrezkoa dela ohartarazi dute.

Ailegatu da elurra

Atzo hasi eta hurrengo egunetan ere elurra egingen duela iragarri dute



Bi eskualdeak zuri-zuri esnatu ziren atzo: irudian, Leitzako kale nagusia (ezkerrean) eta Villabona-Zizurkilgo Zubi Zaharra (eskuinean). JAIONE ASTIBIA / IMANOL GARCIA

IBARRA ▶

Eragileei dei berezia, azken ostiral honetarako

‘Euskal presoak Euskal Herrira, estatus politikoa orain’ aldarria lelo

J. ASTIBIA

Bihar, hilabeteko azken ostirala eta urtekoa ere izaki, antolatu duten elkarretaratzerako dealdi berezia egin du Ibarrara Herri Ekimenak.

Euskal presoak Euskal Herrira, estatus politikoa orain! leloarekin, bihar, 20:30ean, herriko sarreran egingen duten elkarretaratzerako dealdi berezia eta bertan parte hartzeko eskaria egin diete herriko eragileei, besteak beste, kultur gintzan, kirolan, irakaskuntzan, sindikatuetan lan egiten duten talde eta lagunei. Egunez egun, Ibarrara Herri Ekimenak ere aurrera daraman aldarriari babesa ematea eskatu diete guztiei, eta euren atxekimena azal dezatela, biharko ekimenean parte hartuz edota beren eguneroko lanean ere pausoak emanez. Zentzu horretan, esate baterako, Ibarrran lan egiten duten hainbat sindikatuk, tartean ELAk eta LABek, euren egoitzetan, *Euskal presoak Euskal Herrira* adierazten duen ikurra ezartzeko konpromisoa agertu dutela jakinarazi dute.

Urteko tenore honetan, sendeentzat ere «are gogorra-goa» egiten den euskal herritar presoek sakabanaketa behingoz amaitu dadin esijituz, beste behin ere egingen diren ekitaldiekin, kasu honetan herriko presoak, Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko, Jon Mindegia eta Maite Aranalde izango dituzte go-goa.

ARESO ▶ OLENTZEROREN DESAGERPENEA

Olentzeroa bahitu izana onartu duten guardia zibilei espedienteak irekiko diete

Halaxe eman zuen jakitera, atzo, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Vicente Ripak; lekukoen azalpenak «oso baliozkoak» izan dira

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdiartean Vicente Ripa Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak jakitera eman zuenez, Gabon gaueko goizaldean ustez Olentzeroren bahiketan parte hartu izana onartu zuten bi guardia zibilei espedienteak irekiko diete eta dagokien zigorra ezarri.

Herenegun eguerdian bildu zen Aresoko alkatea Riparekin, eta Plaza Zaharreko Olentzero-

ren lapurretaren berri eman zion, egileak guardia zibilak izan zirela azalduz; izan ere, herritar talde batek ikusi egin zuten nola sartzen zuten Olentzero patrolean eta ondoren alde egiten zuten. Ripak ikerketa egitea agindu zuen. Zentzu horretan, atzo bertan «oso baliozko» jo zituen alkateak emandako argibideak, «lekukoen emandako matrikula zenbakia», kasu. Nonbait datu horrek asko erraztu die lapurre-

taren egileak identifikatzeko lana, ziotenez. Ondorioz, Olentzeroaren desagerketan ustez parte hartu izana «hasiera batean onartu» duten Guardia Zibileko kide A.P.C-ri. eta J.N.C-ri, espedienteak irekiko dizkiete.

Zigorrari dagokionez, berriz, kasua aztertuko duen ikertzaileak erabakiko omen du «disziplinari-hutsegitea», delitua ez, «grabea edo oso grabea» den eta horren harira ezarriko

omen diete zigorra. «Gehienez, zerbiztutik aparte uztea eta gutxienez 20 egunez lan eta soldatarik gabe gelditzea», izan omen daitekeena, atzo ziotenez.

Informea Guardia Zibilaren Zuzendaritza Orokorrari igorriko omen diote, Komandantzia horretatik, «beti ere, implikaturik dauden bi agenteek horren aurka egiteko duten berme juridikoaren errespetua zainduz», ziotenez.

Lurrin-denda
Maite
opariak...
sentsazio goxoak
sorraraz ditzakete
9:00 - 13:00
16:00 - 20:00
Errementari kalea - TOLOSA - 943 67 03 38

ABENDUAK 31, arratsaldeko 7retan
Zizurkilgo Iruer Arregi plazatik Villabonako Plazara
Manifestazio ixila
AIZTONDO BAILARA
giza eskubide guztien alde!!!

KIMETZ
Eguberritako
eskeintzak
% 20
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

BEDAIO ▶ GABONAK



Baserriz baserri ibili ziren bedaiotarrak. HITZA

Eguberrietan, festa giroa txoko guztitan

Bedaion ere, Gabonetako egunak modu berezian igarotzen dituzte

NEREA URBIZU

Hilabete osoan zehar hainbat ekintza antolatu dituzte Bedaion. Bukatzear dagoen urte honi era politean esan diote agur; izan ere, gauza bereziak egin dituzte. Artubi Elkarteak antolatutakoak kontuan hartzen badira. Besteen artean, Errioxara (Espainia) egin zuten bidaia, baita gaztain eta mondejuaz lagundutako afaria ere. Ezin alde batera utzi afariarekin ia bat datorrena: mus txapelka, hain zuzen ere.

Gabon egunean, urtero legez, baserriz baserri aritu ziren Eguberrietako koplak abesten 38 bat lagun, denak ere mendi magalean dagoen herri honetan egiten duen ho-

tzi aurre eginez, beste urte batez.

Bestalde, sendo dabil Artubi elkarteak dagoeneko gainean dugun urte berriari ongietorria egiteko hainbat ekintza jarri ditu martxan. Aurtengo berrikuntzen artean, Bedaioko argazki eta irudi zaharrez osatutako egutegia dago: egun, aitona-amonak diren jaunartzeo egunekoak, eskolako baten bat, antzerki baten ingurukoak, sesteroaren bat... Zaharrek 50. hamarkadakoak dira. Hilabete bakoitzak hari dagoen atsoitza dauka gainera.

Edonork eskura dezake egutegi hau —herriko gazteren batekin topatzea besterik ez da behar—, eta bi euroren truke lor daiteke.

iragarki laburrak ▶

OHARRAK

Harremanak. Francisca Garmendia Sarasolaren sendiarekin harremanetan jarri nahi dugu. Deitu, arren, 943 62 48 60ra.

SALGAI

Behorak. Monturako bi behor gazte salgai. Deitu 675 704 923 telefono zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Tolosaldeari eta Leitzaldeari buruzko berriak idatzeko aukera eskaintzen du gure webgunean topa dezakezuen *Zeuk idatzi* atalak. Sartu, beraz, gure webgunean eta ez galdu aukera zure berriak jakitera emateko.

AMEZKETA ▶

Euskararen alde egiteko apustu berria: elkarte bat

Amezketako herria, bertako euskararen egoera hobetzeren, elkarte egin nahian

ERREDAKZIOA

Amezketako herriak euskara elkarte bat sortzeko asmoa du. Horretarako, euskararen alde lan egiteko prestutasuna duen jendea elkartzeko asmoa dute.

Euskararen Elkarte honen helburuak hauek izango lirarteke: alde batetik, euskararen alde egiteko aukerak eskaintzea, eta horretarako prest dagoen jendea elkartzea; eta, bestetik, herriko egoera aztertzea beharrik ikustea eta baloratzea eta, era berean, behar horiei erantzun bat ematen saiatzea.

Korrika batzordea sortu zenean sortu zen elkarte berezi bat egitearen ideia. Horregatik, eta helburuak interesa duen jendeari ezagutzera emateko, gaur, 19:00etan, lehen bilera egingen dute, balio anitzeko gelan. Euskalzale guztiak daude gonbidatuta.

ALEGIA ▶

Gaztetxearen eskutik, 'Alegi la nuit' izango da gaurkoan

N. URBIZU

Gaurko ikuskizuna inoiz egin ez dena izango da: *Alegi la nuit*. «Besteek konstatutakoarekin beteko da, inor kontatzera ausartzen bada, behintzat». 20:30ean «pikoteoa, afari-merienda, lunch-a, dena batean egingo da». Eta 22:00etan hasiko da *Alegi la nuit*, denontzako aproposa den ikuskizuna. Bertan, «Interrup-tusen antzeppen laburren taula; Durangon loratutako Txamankizuna, Aluaren algarra entzuteko aukera, eta Nafarroan plop! ageritako perretxikoa» izanen dira, besteak beste. Gonbidapena egina dago, Gaztetxean, gaur, 20:30ean, hortaz.

ALTZO ▶ GIZARTEA



Saskia Agirre-Artola sendiari

N. Urbizu ▶ Urtero legez, Altzoko Udalak Eguberrietako saskia zozketatu du herritarren artean. Zortea Agirre-Artola sendiarekin egon da, haiek izan baitira aurtengo zozketan atera den zenbakia- ren jabeak. Irudian ikusten den moduan, gutzi gozoez betetako saskiak badu zeini zerbitzu ederra eskaini. Altzoko Udaren partetik, «zorianak, eta on egin diezaioala!». HITZA

IKAZTEGIETA ▶ OLENTZERO



Amnistiaren aldeko Olentzeroa

N. Urbizu ▶ Euskal Herriko hainbat herritan, Askatasunaren eskutik, euskal preso politikoaren alde antolatu dituzten ekimenak antzatzak dira. Besteen artean, Ikaztegieta egindakoa izan zen, Amnistiaren aldeko Olentzeroa, hain zuzen ere. Bertan, pasa den larunbatean 25 lagun elkartu ziren, «presoan presentzia ziurtatu eta ikaztegiatarren elkartasun ekonomikoa adierazteko». Trikitixa eta panderoa lagun, Olentzero kanta abesten aritu ziren. HITZA

AMEZKETA ▶

Urte Zahar egunean ere, presoak gogoan

Hilaren 31n, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean, 20:00etan manifestazioa egingen dute Amezketan. Plazan elkartuko dira eta herriko Kandido «dispertsioaren politika txikitzailea jasaten ari dela» ere gogoratuko dute. Honen inguruan ekitalditxo bat egingen dute.

AMEZKETA ▶

Zumadi Guraso Elkartearen zozketa

Amezketako herri eskolaren aldeko zozketan sarituak izan diren zenbakiak hauek dira: 2535 (otar bat); 2662 (aste bukaera bat Zelai Bainu etxean), eta 1238 (Txitxardin Beltzan, bi lagunentzako afaria). Mila esker Zumadi Guraso Elkartearen izenean, eta zorianak.

IBARRA ▶

Emaizta ona lortu berri du Fernandezentz ontzia

ERREDAKZIOA

Emaizta ona lortu berri du Xabier Fernandez ibartarra taldekide den Movistar ontzia Volvo Ocean Race proba ezagunean; izan ere, matxura baten erruz geldirik egon ondoren, behin hori konpondu eta lehia bueltatuta, herenegun bigarren postuan amaitu zuen proba. Hegoafrikako Lurmutur hirian jokatu zen proba, hain zuzen ere, eta haizea izan zen parte-hartzaile askorentzat aurkaririk gogorrena, 30 korapilotik gorako ufadak izan baitziren.

Herbeheretako ABN Amro I.a izan zen lehen postuan amaitu zuen ontzia, eta postu horretan jarraitzen du sailkapen nagusian ere. Azken postuan zegoen Movistar ontzia, berriz, bosgarrenera igo da azken emaitzaren ondorioz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEABURU ▶ PRESOKAK



Andoni Otegi elkartasuna azaldu diote herritarrek

I. Terradillos ▶ Urtero egin ohi duten bezala, hilaren 24an, Andoni Otegi Leaburuko preso politikoari elkartasuna adierazi nahi izan zioten herrikideek. Horretarako, hainbat herritar bildu ziren herriaren sarreran, argazkia atera eta ondoren berari bidaltzeko. Urtarrilaren 2an egingo diote epaiketa Otegiari, eta Tolosaldeko auto-

busa antolatu dute bertara joan eta elkartasuna adierazteko. Autobusa urtarrilaren 1ean irtengo da, eta joatera animatzen denak izena eman beharko du Leaburuko Ostatuan edota Tolosako Raku tabernan, 30 euro ordainuz. Herritar guztiak animatu nahi dituzte ekimen horretan parte hartzera. HITZA

IBARRA ▶ PRESOKAK

Presoen egoera inoiz baino larriagoa dela dio Batasunak

Presoen aldeko jarrera eskatu du, euren aldeko ekitaldietan parte hartuz

IÑIGO TERRADILLOS

«Presoen eta iheslarien arazoaren aurrean» badela zertan lana egin azaldu berri du Ibarrrako Batasunak, «beraien eskubideen defentsan batetik, baina baita izaera politikoaren aldeko borrokan ere».

Adierazi dutenez, «gatazka politiko baten ondorioz dira preso eta iheslari; beraz, bereziki gatazkaren konponbideaz hainbeste hitz egiten ari den une honetan, kontuan izan behar dugu presoen eta iheslarien arazoa konpondu gabe ez dagoela egun bizi dugun gatazka konpontzerik, eta noiz-bait konpondutzat ematen bada, muina edo arazoak —bi estatuen zapalkuntza— eta ondorioak —presoak eta iheslariak— konpondu direlako izango da».

Halaber, presoen gaur egungo egoera «inoiz baino larriagoa» dela zehaztu dute, eta «zalantzarik gabe, euskal he-

rritarren gainean egiten den biolentzia formarik handiena eta ankerrena euskal preso politikoen kontra egiten dena da, eta eragile politiko gehien pasibitatearekin gertatzen da, gainera». Bestalde, Espainiako eta Frantziako gobernuak presoak trukerako moneta gisa gordetzen dituztela, eta hori zenbait alderdi politiko, eragile eta komunikabidetik guztiz modu lasaian aitortzen dela adierazi du Ibarrrako Batasunak eta, ondorioz, euren oinarriko baldintzak ukatu egiten direla salatzen dute. Gaineratu duenez, «ezker abertzaleak argi utzi behar du konponbiderako gakoak Euskal Herriaren eskubide guztien bermean, hitza eta erabakia errespetatzean datzala», eta, hain zuzen ere, hor kokatzen dela bi estatuek gatazka konpontzeko eman behar duten urratsa gehitu du. Horrekin batera, bigarren elkarriketa mahai bat osatu behar dela gatazkek eragindako on-

GATAZKA

«Presoen eta iheslarien arazoa konpondu gabe ez dago egun bizi dugun gatazka konpontzerik»

dorioei konponbidea emateko esan du Batasunak.

Bestalde, ezker abertzaleak Euskal Herriko herritar gisa jarduteko eskubidea aldarrikatzen du euskal preso politikoen estatus politikoa errebindikatzea ezker abertzaleko kide guztion lana» dela azaldu dute; halaber, Preso Politikoen Kolektiboak zehaztu dituela «bermatu behar diren

eskubideak —torturarik ez: isolamendu eta jipoirik ez; osasun eskubideak: gaixoak kalera; komunikazio eskubidea, interbentzio eta mugarik gabe; hizkuntza eskubideak, euskaraz bizitzeko; hezkuntza eskubidea trabarik gabe; Euskal Herriaren elkartzeko eskubidea; antolatze eskubidea; mintzaketaren aitortza; beste eragileekin harremanak izateko eskubidea; euskal eztabaida eta erabakigune orotan parte hartze eskubidea— adierazi du.

Presoekin bat egiteko deia

Ibarrrako Batasunak presoen aldeko jarrera eskatu du gizar-tearen eguneroko jardueretan; bestalde, gogorarazi du presoen eta iheslarien aldeko ekimenean dibaltzen ibartarrek ekitaldi ezberdinak antolatu dituztela eta horietan parte hartze deia luzatzen die herritar guztiei.



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Ibarra. Gorringo taldearen *Antonino Apreta* ipuin kontaketa. 11:30ean, Benito Izagirre kultur etxean.
Villabona. *Erreleboia*. 20:00etan, Gurean. Txalo Teatroaren eskutik. Doan.

DEIALDIAK

Alegia. Alegi la nuit barietes ikuskizuna, Gaztebean. Ondoren, 20:30ean, afari-merienda. Segidan, 22:00etan, esketxak, musika elektronikoa zuzenean, Aluaren Algara, Water Parties, Interruptus... 18. urtemugaren harira.
Amezketak. Herriko euskara elkarteak sortzeko lehen bilera. 19:00etan, balio anitzeko gelan.
Irura. *Zer nahi duzu zure herrirako?*. Agenda 21 egitasmoa plazaratzeko ekimena, haurrei zuzenduta. 17:30ean, Trinketean.
Lizartza. Bide Eginez, Batasuna aurrera batzarra. 20:00etan, udaletxean.
Tolosa. Aeroboxing praktikatzeko aukera izango da Kultur Etxean, 16:30ean, II. Gazte Astearren barruan.
Tolosa. Laskorain ikastolak antolatutako Merkatu Txikia Kultur Etxean, Sahara eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte.
Villabona. Cycling-eko maratoni txikia Olaederra kiroldelgian, 18:30etik 21:30era. Izena emateko aukera dago oraindik, baina plaza gubi gelditzen dira.

HITZALDIAK

Zizurkil. Sozialismoa hizpide, Ibon Artolarekin. 19:00etan, Kultur Etxean. Gazte Asanbladak deituta.

ZINEMA

Asteasu. *Azti irakaslea*. 16:00etan, udaletxeko zine gelan. Gero, merienda, Guraso Elkarteak prestatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Gure bazterrak

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Nereak, Alaznek, Raquelek eta Mariak bidalitakoak dira tarte honetan jasotzen ditugun marrazkiak



ALTZO ▶

Nerea Laso (10 urte).


«Altzoko eliza da, udaberriko goiz eguzkitsu batean. Oso polita da Altzoko eliza!», dio Nerea Laso 10 urteko gure adiskide altzotarrak.



IBARRA ▶

Raquel Mateos Mangas (8 urte).

«Ibarrako San Inazio auzoa marraztu dut nire auzoa delako eta bertan oso ondo pasatzen dudalako», dio Raquel Mateosek.



VILLABONA ▶

Alazne Artola Rodriguez (10 urte).

«Villabonako udaletxea da. Villabonako umeak asko joaten dira jolastera, asko gustatzen baitaie», esan digu Alazne Artolak.



TOLOSA ▶

Maria Prada Luengo (8 urte).

«San Joan da, trainera egunean. Horri Errotaren puska bat da, eta ur hori Oriia ibaia. Eguzkia San Joan himnoa ari da abesten».

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tarte
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!